Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 85. alea	DATA: 2026/10/23

GUREAN



SUSTRAITIK ESPAZIORA

Errigoratik iritsi zaigu dagoeneko beraien eskaintza. Hainbat saski jarri dituzte salgai eta saski bakoitzean lortzen den preziotik %25a Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da. Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Eskaerak egiteko epea: urriak 22tik-azaroak 12ra.

GURE PLANAK

"BASATIA NAIZ!"

ANTZERKIA: GANBARA ARETOAN (KURSAAL)
LARUNBATA 24, 18:00

"Sekretuen Basoa" esperientzia bisual eta musikala da, non dantzak eta musikak etengabeko elkarrizketan diharduten proiekzioen laguntzarekin. Hitzik gabe baina soinuz eta emozioz gainezka, arteak espazioa nola eraldatu eta irudimena nola piztu dezakeen entzutera, behatzera eta sentitzera gonbidatzen du emanaldiak.



+INFO:

BAZENEKITEN...

... Kutixik Jaialdia 2026 egingo dela larunbat honetan Intxaurrondoko Kultur Etxean? Balio Dute kolektiboak antolatutako jaialdiak tokiko artisten talentua nabarmendu eta ikusgai jartzeko helburua du.

